



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	SESTAOKO ANGELA FIGUERA B.H.I.				Kodea 014440	2015-2016
GAIA	PLASTIKA ETA IKUS EZKUNTZA				DATA	2015-10-30
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH4	X	

1	HELBURUAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
	<p>1-Planifikatzen ikastea. Bozetoak, elementuen ikerketa eta osoriko aurkezpena egiten ikastea</p> <p>2-Planifikazio horren urratsak jarraitzea.Ikaslearentzako interesgarria diren elementuak aukeratzeko (esanahiaren arabera, gustoaren arabera edota zailtasunaren arabera) jakitea</p> <p>3-Poligonoak, obaloak, oboideak eraikitzekeo jarraitu behar diren urratsak jarraitzen jakitea. Bistak eta perspektiben arau nagusiak ezagutzea eta perspectiva konikoaren oinarriak jakitea.</p> <p>4-Arkatzaren komunikazio aukerak ikustea eta jabetzea: grafismoak, argilunak..Puntua, marra eta planoak dituzten komunikatzeko aukera zabalaz jabetzea</p> <p>5-Diseinorako programa informatikoaren oinarriak ezagutzea</p> <p>6-Ikaskideen kritikak onartzea eta guztion aurrean baloratzea</p> <p>7-Produktu estetikoaren garrantziaz jabetu eta kartelaren ezaugarri nagusiak menperatzea (komunikazioa,</p>	<p>Ea bere nortasunaren zenbait alderdi erakusten duen lanak sortzen dituen.</p> <p>Ea erabiltzen dituen beste pertsona batzuegandik hartutako ideiak edo proposamenak, arrazoituz, proposamen plastiko berriak egiteko.</p> <p>Ea bilatzen dituen ingurunean eta arte-ekoizpenetan bere adierazpen- eta komunikazio-asmoekin bat datozen erreferenteak eta ideiak.</p> <p>Ea prest azaltzen den arte-ekoizpenen eta ikusizko ekoizpenen bitartez komunikatzeko.</p> <p>Proposatutako arte-problemarentzako euskarri, material, tresna, prozesu eta prozedura egokia erabiltzea, eta zuzentasunez erabiltzea lanetan.</p> <p>Ea behar bezala erabiltzen dituen, adierazpen eta komunikazio-asmoz, teknologia euskarri duten bitartekoak.</p> <p>Froga bi izango dira ebaluazio bakoitzean. Bat marrazketa tekniko eta bigarrena artistikoa baloratzekeo.</p> <p>1.Ebaluaketan: Datu batzuk emonez poligonoak, obaloak, oboideak, kiribilak eta</p>



tipografiak eta irudien tratamendua)

8-Norbera eta beste guztien lanak baloratu eta besteen aportaziak norberaren ekimenerako balioa ikustea

9-Klasearen lan giroa, elkarbizitza eta tolerantzia landu, kultura ezberdinak eta genero berdintasuna errespetatzeko

arkuak eraikitzea. Minimoa 4 etaratzea eta ariketak eginda izatea

Klaseko lana baloratuko da eta beste lan hauek hartuko dira:

1. proiektua

Ikerketa-Bodegoia: zortzi elementu ezberdinak argilunekin. Elementu bakoitzatik 3 bozeto leku ezberdinetatik Aukeraketa-Bi bodegoi orokorrak DIN A3. Aurreko elementoa eta atzena ondo kokatuta perspektiba ikusteko.

2. Ebaluaketan: Pieza batzuk emonez bistak etara (aurretikoa, goitikoa eta albotikoa). Minimoa 5 eta ariketak eginda izatea.

2. proiektua

Ikerketa-Erretratoa. Aurretik perfiletik. Gelako bi pertsonen erretratoa. Gorputza. Ikasleen eskemak. Bakoitzatik bat.

Aukeraketa-Binaka. Gorputz osoko marrazkia A3an. 5 bozeto gutxienez.

3. Ebaluaketan: Perspektiba konikoa: zentrala eta zeharra. Minimoa zentrala egiten jakitea 3. proiektua

-Perspektibak eta paisaiak. Ikerketa: Naturatik bozetoak egin. Aukeraketa: entregatzeko 2 lan A3 an ondo bukatuta

Froga biak 4 baino gehiago izan behar dute batzbestekoa egiteko eta lanekin berdintzatuko da. Lanetan urrats edo atal guztiak entregatu beharko dira.

A21eko lehiaketan partehartzea derrigorrezkoa da: kartelen balorazioa egingo da beste hauek kontuan hartzen: fondoak, tipografia eta erabilitako irudiak eta hauen tratamendua.



2	EDUKINEN DENBORALIZAZIOA		
1. EBALUAZIOA	2. EBALUAZIOA	3. EBALUAZIOA	
<p>Arte -hizkuntzen baliabideak eta arauak</p> <p>-Eskuaira eta kartaboa errez erabiltzea paralelak eta perpendikularrak marrazteko.</p> <p>-Eskuaira eta kartaboiarekin osatu ahal diren angeluak ezagutzea.</p> <p>-Poligono batzuen eraikuntza: Erradioa ezaguturik: hirukia, laukia, pentagonoa, hexagonoa, metodo orokorra.</p> <p>-Elementu bakoitzatik 3 bozeto leku ezberdinetatik.</p> <p>-Izar poligonoak</p> <p>-Arkuak</p> <p>-Obalo, oboide eta espiralak</p> <p>Sorkuntza- prozesuak, -teknikak eta eremuak</p> <p>-Bodegoia:</p> <p>-elementu formalak: -marrak ,planoak ,aurrekaldea eta fondoa, argilunak</p> <p>Arteko eta ikusizkoen kulturako Erreferente estetikoaren ulermena eta interpretazioa.</p>	<p>2-Sistema diedrikoa.Oinarriak Aurretiko,albotiko eta goitiko bistak.</p> <p>"Cavaliere" perspektiba.Bista errezak emonez pieza etara.</p> <p>Axonometrikoaren barruan isometrikoa.Bista errezak emonez eta pieza etara.</p>	<p>-Erretrato obra bi aztertu Bozetoak eta obra orokorra landu.</p> <p>-Perspektiba konikoa Oinarriak</p>	



3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
<p>Liburu desberdinetan proposaturiko ariketen bidez beraien trebetasunak bultzatuz beti ere ikasleen proposamen artistiko desberdinak onartzeko jarrera irekia izanez.</p> <p>Metodología aktiboa eta partehartzailea: ikaslea bera bere ikaste-prozesuaren protagonista izan behar da, bakarkako zein elkarlaneko lanetan, eta irakaslea bere laguntzaile eta gidari. Metodologiak ikaskuntza esanguratsua bultzatu behar du ikaslearen aurrezagutzak azalaraziz, esahutzak berreraikitzen eta, ondorioz, era adierazgarrian ikastea bermatzen. Horrela, ikasleak aurrezagutzatik abiatuta, informazio berria eskuratuko du (dakienarekin lotuta). Edukiak era esanguratsuan eta funtzionalean planteatuko dira, beti ere, ikasleen garapen mailara egokituta. Motibatzailea izan behar da, hau da, egoera ludikoan ikasleen motibazioa pizten duten jarduerak proposatzen dituen.</p> <p>Ikasketa aktiboa bultzatuko da informazioa biltzeko, aztertzeko, egiten ikasteko, errespetua edo talde laneko mekanismoak garatzeko, Azkenik auto-estimua: lana ondo egiten ari direlako sentazioa bultzatuz, ikaslearen auto-estimua bermatuko da.</p> <p>IKTen erabilera garrantzi handia izango du, komunikazio –eta informazio- gune berriak ezartzeko.</p> <p>Akatsaren tratamenduak berebiziko garrantzia izango du euren lanetan.</p> <p>Taldekatzeko moduak: hainbat taldekatze motatan lan egingo da, egoeraren arabera: Talde handiko, txikiko eta banakako lana (lan pertsonala ikaskuntzaren oinarria izanik, taldeko lanak ere oso beharrezkoak dira). Talde heterogeneoak sortzea ezinbestekoa da, bai sexu bai trebetasun aldetik. Lan hauetan etorkizunean lanerako oso beharrezkoak izango dituen alderdiak garatzen ditu ikasleak, besteen ideiak baloratuz eta errespetatuz, eta besteengandik ikasi</p> <p>Klarearen lan giroa, elkarbizitza eta toleranzia landu, kultura ezberdiak eta genero berdintasuna errespetatzeko</p>	
3.1	ANIZTASUNA
<p>Aniztasuna egungo ezaugarria dugu. Ikasle guztiak ikasteko prozesuaren aurrean anitzak dira, jarrera, interes, motibazio, ahalmen, ikasteko modu eta aurretiko esperientzia eta batzuetan kultura ezberdinak ere baitituzte. Proposatu diren ariketak hainbat gaitasun mailatatik normalean ikasle guztiak egiten ahal dituzte eta ariketa zaluak izanez ikasle bakoitzak bere berezkotasunarekin egin ditzan pentsatuta daude. Beraz, ikaslearen sormena eta autonomia bultzatuko dira.</p> <p>Aniztasuna tratatzeko neurriek unean uneko premiei erantzun beharko diete, ikasleen motibazio eta ahalmena ahintzat hartuta, ingurune inklusiboan ikasteko.</p>	

4	BALIABIDEAK
<p>Erabili daitekeen testu liburua .</p> <p>Ikasleen koadernoak, eskuaira, kartaboa, erregela, konpasa, adaptadorea, argizariak, tenperak, pintzelak, errotulkiak, zenbakidun errotulkiak eta bestelako materialak.</p> <p>Urbileko errealitatea behatzeko aukera ematen dutenak: hedabideak, prensa, interneta, sare sozialak,..</p> <p>Power pointen bidez eginiko aurkezpenak.</p>	



--

5	EBALUAZIOA: EBALUAZIO-TRESNAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
<p>Portaera %10 Lanak %90</p> <p>Azterketak izatekotan: Portaera %10 Lanak %50 Azterketa %40</p> <p>Eskatutako lan guztiak fijatutako epean entregatu beharko dira eta aldeztatik fijatu diren puntu guztiak bete beharko dituzte.</p>	

6	BERRESKURATZEA. BERRESKURAPENERAKO JARDUERAK
<p>Ikasleek ebaluazioa amaitu amaiyu ondoren gaintitu gabeko jarduera praktikoak berreskuratzeko aukera izango dute. Horretarako, gaintitu gabe dituzten azterketak edo eta lan praktiko berberak edo antzekoak egingo dituzte.</p>	